

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

46/2019 Foru Agindua, otsailaren 28koa, zeinaren bidez baimentzen baita María Guadalupe Fernández de Olano López de Roblesen behin-behineko izendapena, Burgeluko Udaleko idazkari lanpostua betetzeko

Burgeluko Udalak atal honi jakinarazi dio, idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren titular Ignacio Pérez Ávilak erretiro aurreratua hartu duenez 2019ko otsailaren 1ean, behin-behineko izendapen baten beharra daukala lanpostu hori betetzeko 2018ko lehiaketa bateratua ebatzi bitartean, hain zuzen lehiaketa horretan sartu baita gaikuntza nazionaleko toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostu hori.

Horregatik, proposatu du udal horretako funtzionario M^a Guadalupe Fernández de Olano López de Roblesen behin-behineko izendapena egitea.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Guadalupe Fernández de Olano López de Robles behin-behinean izendatzea Burgeluko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2019ko otsailaren 2tik aurrera, harik eta 2018ko lehiaketa bateratua ebatzi ondoren lanpostu horren esleipenduna lanpostuaz jabetzen den arte.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Burgeluko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 28a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua,
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ